

Aukeratu proposatzen diren bi gaietako bat eta saiatu gutxienez 200 hitz dituen idazlana osatzen. Zaindu itzazu arlo hauek zure idazlanean:

- Eskatutakoari erantzun, ez inguru-minguru ibili edo beste zerbait kontatu.
- Testu egokia osatu.
- Euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili.

1. Gaia: Emakume etorkinek ezin lana lortu

Egoera: Duela gutxi argitaratutako ikerketa soziologiko batek erakutsi du emakume etorkinek lan-aukera gutxiago dituztela (entzun [gai honi lotutako audioa](#)). Enpleguaren gaiak kezkatzen zaituenek, zeure iritzia plazaratu nahi duzu.

Egitekoa: Idatzi zure iritzia etorkinen alde lan egiten duen **S.O.S. Etorkin** elkartera, iritzia hori elkarteko webgunean argitaratzeko eta, horretarako:

- Konta ezazu zer iruditzen zaizun audioan azaltzen den kasua.
- Arrazoitu zergatik sortzen diren, zure ustez, horrelako egoerak.
- Proposa ezazu antzeko kasuak saihesteko neurriren bat.



Egitekoari erantzuteko, nahi izanez gero, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Gaur egun zaila da enplegu duina lortzea: kontratu asko kaskarrak dira.
- Pertsona guztiek izan beharko lituzkete aukera berberak, baina praktikan ez da hala gertatzen.
- Enpresariak, askotan, etekinak besterik ez dituzte kontuan hartzen.

[Laguntzeko, hemen dugu gai horren gaineko eredia.](#)

2. Gaia: Asko aldatu da etxeko lanen ardura?

Egoera: Udalak aurten ikastaro hau eskaini nahi die, emakumeei soilik: “Emakume, aurreztu denbora etxeko lanak egiten dituzunean”.

Egitekoa Idatzi testu bat udaletxeko aldizkarian argitaratzeko (ikus [gaiarekin lotutako bideoa](#)) eta, horretarako:

- Adierazi udaletxeko ikastaroa atsegin duzun ala ez, eta zergatik.
- Azaldu zure etxean etxeko lanen ardura nola banatzen den.
- Azaldu garai bateko eta oraingo ohiturak asko aldatu diren etxeko lanei buruz.



Egitekoari erantzuteko, nahi izanez gero, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Gizonak eta emakumeak, biak dira gauza etxeko lan guztiak egiteko.
- Gaurko gazteek, mutil eta neskek, ez dituzte etxeko lanak egiten. Ados zaude?
- Udaletxearen eskaintza aldatuko zenuke?

[Laguntzeko, hemen dugu gai horren gaineko eredia.](#)